

824/2024 EBAZPENA, AZAROAREN 14KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ HUTSIK UZTEN BAITA URRIAREN 14KO 763/2024 DEIALDIA, ADMINISTRARI-LAGUNTAILEA ETA ERABILTZAILEREAREN ARRETA LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO EKONOMIAKO ETA FINANTZAKO ZUZENDARITZAKO FINANTZA, AURREKONTU ETA EROSKETEN ZUZENDARIORDETZAKO KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOKO ZERBITZUAN.

AURREKARIAK

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren urriaren 14ko 763/2024 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Kontratazio Administratiboko Zerbitzuan Administrari-laguntzaile eta erabiltzailearen arreta lanpostu bat aldi baterako barne-sustapenaren bidez betetzeko (2024ko urriaren 22an argitaratu zen webgunean).

EBAZTEN DU:

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzako Finantza, Aurrekontu eta Erosketen Zuzendariordetzako Kontratazio Administratiboko Zerbitzuan, hautagaiak falta direlako, Administrari-laguntzaile eta Erabiltzailearen Arreta lanpostua aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu eginkizunen bidez betetzeko deialdia hutsik uztea.

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal zaio Osakidetza zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 14a.



 **Osakidetza**
Josune Retegi Ormazabal
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendaria,
JOSUNE RETEGI ORMAZABAL.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD